# zure erakustoki

# tu escaparate



Ayuntamiento Udala

irun

www.irun.org

IRUNGO MERKATARITZA KANPAINA | CAMPAÑA DE PROMOCIÓN AL COMERCIO DE IRUN



## *Merkataritza profesionala eta kalitatezkoa*

## Comercio profesional y de calidad

*Egun, Irun hiria gune erakargarria da merkataritza alorrean, baita udalerriaren muga geografikotik haratagoentzat ere. Bere establezimenduen barietatea, kalitatea eta lehiakortasunak erosleak erakartzen ditu bai iparraldetik, bai Nafarroatik eta bai hurbileko beste herrietatik, Hondarribitik adibidez, eta gero eta gehiago Oiartzun, Lezo, Errenteria edo Donostia bezalako herrietatik.*

*Hiriak bere alde daukan ezaugarrietako bat garaietara moldatzen jakin izana da, erosteko formula eta joera berriak barneratuz, adibidez, frankizia handiak eta zentro komertzialak, baina bere nortasun propioa eta merkataritza tradizionalaren lehia eta kalitatea galdu gabe.*

*Gainera, hiria bisitatzen duenari ostalaritza eta jatetxeen sektorean aukera oso zabala eskaintzen dio Irunek, non atsedena hartu eta eskaintza gastronomikoez gozatzeko modua egoten den. Eta osagarri gisa, kultura alorreko aisialdiaren eskaintza hazten doa, adibidez, Oiasso museoa, Ficoba azoka edo Plaiaundiko parke ekologikoa, besteak beste.*

*Irungo merkataritza sektore ekonomiko oso indartsua izan da eta egun hala jarraitzen du izaten, eta, gainera, erosketak egiteko oso erakargarria izateaz gainera, gure hiria aisialdi eta gastronomiarako destino bat ere bada, horregatik, lerro hauen bitartez, ezagutzera gonbidatzen ditut denak.*

Hoy en día, Irun es un reconocido centro de atracción comercial más allá de los límites geográficos del propio municipio. La variedad, calidad y competitividad de sus establecimientos atraen compradores desde el país vascofrancés, de la vecina Navarra, de localidades próximas como Hondarribia y, cada vez más, de otros núcleos poblacionales como Oiartzun, Lezo, Errenteria o San Sebastián.

Entre los atractivos que ofrece la ciudad está el de haber sabido adaptarse a los tiempos, acogiendo nuevas fórmulas y tendencias de compra como las grandes franquicias o los centros comerciales, sin perder su personalidad propia y la pujanza y la calidad de los comercios tradicionales.

Además, la ciudad ofrece a quien la visita un amplio espectro de establecimientos de hostelería y restauración donde hacer un descanso y saborear algunas delicias gastronómicas. Y como complemento, la oferta de ocio cultura crece en la ciudad, con el museo Oiasso, las ferias de Ficoba o el parque ecológico de Plaiaundi entre sus atractivos.

El comercio de Irun ha sido y es un potente sector económico para la ciudad pero, además de un lugar atractivo para las compras, nuestro municipio es también un destino para el ocio y la gastronomía que, desde estas líneas, animo a todos a conocer.

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

José Antonio Santano
*Irungo alkatea* - Alcalde de Irun

## *Hiriak Renfe eta Euskotren geltokiak ditu eta lur azpiko hiru aparkaleku hirigunean*

## La ciudad cuenta con estaciones de Renfe y Euskotren y con tres aparcamientos subterráneos en el centro








***Irunek duen ezaugarrietako bat komunikazio onak dituela da:*** *RENFE geltokia, hirigunean gelditzen dena, eta Euskotren, "topo" ezaguna, Donostia eta Hendaia lotzen dituena hirigunean gelditzen eta Santiago nazioarteko zubian ere bai, mugako zonalde komertzialean bertan eta Ficoba azoka eremutik metro gutxira.*

*Hirian lur azpiko hiru aparkaleku daude:*

- ***Colón**, bisitariak erraz aparkatu ahal izango du ibilgailua, erosketak egiteko.*
- ***Pío XII** izen bereko eremu komertzialean, Donostiatik Elizatxo hiribidean barna sartzen direnentzat edo Hondarribitik etortzen direnentzat oso erraz aparkatzeko aukera ematen duena.*
- ***Mendibil parke komertzialean**, Iparralde hiribide ondoan dago eta Hendaiatik eta beste herri frantziarretatik datozen erosle askorentzat erraz aparkatzeko.*
- *Gainera, azaleko aparkaleku zabala dauka **San Juan plazan**, Udalaren ondoan.*

**Si por algo se caracteriza Irun es por sus excelentes comunicaciones:** estaciones de RENFE, con parada en el centro y Euskotren el popular "topo" que conecta San Sebastián con Hendaya, con parada en el centro y también en el puente internacional de Santiago, en la misma zona comercial fronteriza y a escasos metros del recinto ferial Ficoba.

La ciudad cuenta con tres aparcamientos subterráneos:

- **Colón**, en los que el visitante puede encontrar facilidad para estacionar su vehículo mientras hace sus compras.
- **Pío XII**, en la zona comercial del mismo nombre, es el primero de ellos, muy accesible para quienes llegan desde San Sebastián por la avenida de Elizatxo o quienes lo hacen desde Hondarribia.
- En el **parque comercial Mendibil**, junto a la avenida de Iparralde que sirve de acceso a muchos compradores procedentes de Hendaya y otras localidades francesas.
- Además cuenta con un amplio parking en superficie en la **Plaza San Juan**, junto al Ayuntamiento.






# Erakustokí aparta

# El gran escaparate

*COLÓN ibilbidea da hiriko kale nagusia. Hori da, neurri handi batean, irundarren eguneroko bizimoduaren lekukoa, eta bertan kokatua dago Irungo ibilbide komertzialetako bat, Luis Mariano eta Argentinar Errepublika bezalako intentsitate handiko guneak hantxe daudelarik.*

*Zonalde honetan dago, gainera, zentro komertzial moderno bat, non produktuen eskaintzak aisialdiaren eta gastronomiaren zerbitzuekin bat egiten duen. Eskaintza zabala hirigunean bertan.*

***Serapio Mugica, Juan Arana eta Gipuzkoa hiribidea** dira, **PIO XII** plaza ondoan kokatuta, jardueraren beste ardatz horretan establezimendu gehien pilatzen dituzten kaleak. Galeria komertzial batetik lotzen da Colon ibilbidearekin.*

***SAN MIGUEL** auzo jendetsuak ere era askotako denda asko dauka.*

El paseo de **COLÓN** es la gran arteria vital de la ciudad. Por ella discurre buena parte de la vida común de los iruneses y en ella está instalada también una de las rutas comerciales más importantes de Irun, con zonas de gran intensidad como Luis Mariano y República Argentina.

En esta zona se da cita, además, un moderno centro comercial, Mendibil, en el que la oferta de productos se une a servicios de ocio y gastronomía. Gran oferta en pleno centro.

Las calles **Serapio Múgica, Juan Arana y la avenida de Gipuzkoa**, situadas junto a la plaza de **PÍO XII**, concentran la mayor parte de los establecimientos de este otro eje de actividad, que se conecta con Colón a través de una galería comercial.

El populoso barrio de **SAN MIGUEL** cuenta con un importante número de comercios muy variados.



*Irunek **produktu freskoen bi azoka dauzka**, non bezeroak eguneroko bere erosketak egin ahal dituen kalitate eta barietate handiko gauzekin:*

***URANZU** azoka San Miguel auzoaren erdi-erdian dago (sarrera Basurko kaletik) eta lehen mailako produktuak eskaintzen dituen azoka da, gustu guztiei erantzuteko moduko barietatearekin eta oso prezio lehiakorrekin. **Ordutegia astelehenetik ostiralera: 8:00-13:30 // 17:00-20:00. Larunbatetan 8:00-13:30.***

***MERCAIRUN** azoka hirigunean dago (sarrera Iparralde hiribidetik eta Argentinar Errepublika kaletik) eta lur azpitik Mendibil zentro komertzial eta aisialdiko zentro berriarekin lotuta dago. **Ordutegia astelehenetik ostiralera: 8:30-13:30 // 16:30-20:00. Larunbatetan 8:30-14:00.***

Irun cuenta con dos **mercados de productos frescos** en los que el cliente puede llenar diariamente su cesta de la compra con artículos de gran calidad y variedad:

**URANZU** se sitúa en el corazón del barrio de San Miguel (entrada por la calle Basurko) y es un mercado que ofrece mercancía de primera calidad, con una gran variedad capaz de satisfacer todos los gustos y unos precios muy competitivos. **Horario de lunes a viernes: 8:00-13:30 // 17:00-20:00. Sábados: 8:00-13:30h.**

**MERCAIRUN** situado en el centro de la ciudad (entradas por avenida de Iparralde y calle República Argentina) y está conectado de forma subterránea con el nuevo centro comercial y de ocio Mendibil. **Horario de lunes a viernes: 8:30-13:30 // 16:30-20:00. Sábados: 8:30-14:00h.**

# ONGI ETORRI IRUNERA



*Udaletxea eta San Juan Harria*
Casa Consistorial y San Juan Harri



*Arbelaitz Jauregia*
Palacio Arbelaitz



*Junkaleko Amabirginaren Eliza*
Iglesia de Ntra. Sra. del Juncal


*OIASSO Museoa*
Museo OIASSO



# BIENVENIDOS A IRUN







*Ama Xantalen Ermita-Museoa. Aztarnategia*
Museo-Ermita Santa Elena. Yacimiento




*Plaiaundi parke Ekologikoa*
Parque Ecológico Plaiaundi




FICOBA



# Ongi etorri Irunera - Bienvenidos a Irun



### Udaletxea eta San Juan Harria
### Casa Consistorial y San Juan Harria

*Irungo Udaletxea XVIII. mendekoa da eta barroko estiloan eraikia dago, garai hartan Europan oso zabaldua zegoen arte korronteari jarraiki. Eraikin hau San Juan Harria plazan dago, eta tradizionalki bertan egokitu dira udal bulegoak.*

El Ayuntamiento de Irun data del siglo XVIII y está construido en estilo barroco, siguiendo la corriente artística en aquella época. Situado en la plaza de San Juan Harria, se han ubicado tradicionalmente las dependencias municipales.



### Arbelaitz Jauregia
### Palacio Arbelaitz

*Eliza kalean dagoen oinetxeak, Arbelaitz familiarena izateari zor die ospea. 1936an erre ondoren, berritu egin zuten. 1964. urtean, otsailean, Gipuzkoako Monumentu Historiko-Artistiko izendatu zuten.*

Sito en la calle de la Iglesia, es una casa solar que debe su importancia al linaje de los Arbelaiz. Tras el incendio en 1936, ha sido reconstruido. Fue declarado Monumento Histórico-Artístico Provincial en febrero de 1964.



### Junkaleko Amabirginaren Eliza
### Iglesia de Ntra. Sra. del Juncal

*Junkal Eliza 1508. urtean hasi ziren eraikitzen eta 1606an amaitu zuten; eraikuntza-lanek luze jo zutenez era askotako arte-estiloak daude ikusgai tenplu honetan; honenbestez, “euskal gotikoaren” araberako atalak aurkezten dira.*

Comenzada a construir en 1508 no se terminó hasta 1606; la duración tan larga de las obras determinó los distintos estilos del templo: junto a caracteres propios del último período del gótico aparecen otros rasgos del “gótico vasco”.



### OIASSO Museoa
### Museo OIASSO

*Oiasso XX. Mendearen amaieran Gipuzkoan egindako aurkikuntza arkeologikorik garrantzitsuena da. Ezerezetik hiri erromatar bat sortu da, zeinaren azalera urbanoa 15 eta 20 hektarea bitartean dagoela kalkulatzen den.*

Oiasso es el acontecimiento arqueológico más importante del panorama guipuzcoano de finales del siglo XX. De la nada ha emergido una ciudad romana cuya superficie urbana se evalúa entre 15 y 20 hectáreas.



### Ama Xantalen Ermita-Museoa
### Museo-Ermita Santa Elena

*Hiriko parte zaharretik hurbil dago oso, hogei mendetan zehar oso eraikin garrantzitsua izan da, gurtzeko egoitza izan delako eta bertan aztarna arkeologikoak aurkitu direlako. Aztarnen aipagarrienak, agian, I.mendeko “in antis” erromatarren eliza da.*

Situada cerca del casco viejo, su gran importancia reside en el hecho de haber sido lugar de culto a lo largo de 20 siglos y en la existencia de restos arqueológicos. Lo más destacable es, tal vez, un templo romano “in antis” del Siglo I.



### Plaiaundi parke ekologikoa
### Parque ecológico Plaiaundi

*Itsasoaren eta ibaiaren artean dagoen esparru bat da, mareek hartua, eta hegazti migratzaileen babesleku izateaz gainera, fauna eta floraren behatokia ere bada. Toki heze hau hegazti migratzaileen Europako igarobide nagusietako bat da.*

Espacio entre el mar y el río dominado por las mareas que sirve como refugio para las aves migradoras, a la vez de ser observatorio de fauna y flora. Este humedal es uno de los pasos migratorios más importantes de aves de Europa.



### FICOBA

*Erakustazoka honek, 2003ko urriaren 9an ireki zituen ateak. Baiona-Donostia eurohiriaren erdi-erdian dago eta urtero-urtero era guztietako azokak (Mendiexpo, Bioterra) eta erakusketak (Antigoaleko autoen aretoa) egiten dira bertan; enpresa-sektoreentzat eta herritar guztientzat zabalik dago.*

El Recinto Ferial abrió sus puertas en octubre de 2003. Situado en el corazón de la eurociudad Baiona-San Sebastián reúne cada año ferias de todo tipo (Mendiexpo, Bioterra) y exposiciones (Salón de coches antiguos), visitadas tanto por sectores empresariales como por el gran público.



# Pintxoz pintxo Irunen barrena
# De pintxos por Irun

Zerbitzu zaindua, lehen gaietan kalitatea eta giro jatorra balora-tzen dutenentzat Irunek taberna eta jatetxe ugari eskaintzen dio bisitariari, non Euskadiko berezko gastronomia das-tatu ahal izango duen.

Pintxorik sofistikatuenetik hasi eta plater fin eta goxoenera, postre eder eta erakar-garriak ahaztu gabe, dena, gastronomiako benetako profesionalek eskainita.

Irungo hiru ardatz komertzial han-diak, Colon, Pio XII eta San Miguel auzo jendetsua dira jaki goxo horiek dastatze-ra joan beharreko tokiak.

Hiriaren erdialdean, San Juan plaza-ren inguruan, biltzen diren hiriko ospe handieneko taberna eta jatetxeez ere go-zatu ahal izango dugu.

**Ohiko janaria, pintxo goxoak, aire zabaleko terrazak... Aurkitu du bakoitzak gustatzen zaiona!**





Para quienes valoran un cuidado servicio, la calidad de las materias primas y un entorno amable, Irun ofrece al visitante un sinfín de bares y restaurantes donde poder degustar la gastronomía auténtica del País Vasco.

Desde el más sofisticado pintxo al más refinado y suculento plato, amén de los deliciosos y sugerentes postres, y todo, servido por auténticos profesiona-les de la gastronomía.

Los tres grandes ejes comerciales de Irun, Colón, Pío XII o el populoso barrio San Miguel, son claros ejemplos en don-de podremos degustar tan exquisitos manjares.

También podemos disfrutar de los bares y restaurantes de más reputación de la ciudad que se concentran alrede-dor de la plaza de San Juan, en la zona centro de la ciudad.




**Comida tradicional, sabrosos pintxos, terrazas al aire libre... ¡En la variedad está el gusto!**



BETI DAGO IRUNERA ETORTZEKO ARRAZOIREN BAT

# Zure erakustoki
# TU ESCAPARATE

SIEMPRE HAY UN MOTIVO PARA VENIR A IRUN



MERKATARITZA
COMERCIO

IRUNGO MERKATARITZA KANPAINA
CAMPAÑA DE PROMOCIÓN DEL COMERCIO DE IRUN

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org